| NEURE AMA JAZTEN | | | |
|---|---|---|---|
| ***Excelsior/Euzko-Gogoa* (EXC/EUZG)** | ***50 olerki gandiagatar* (BOG)** | ***Elorri* liburua (ELR)** | ***Elorriko lorea* (ELRL)** |
| Neure arrebatxua jazten zendu lez<br>Neu be jantzi ninduzun, ama, bein batez.<br>Zapi zuri garbiak bedar-usaiñez,<br>jantzi txukun beroak pitxi politez<br>nire amak jazten.<br>Orain nik, ama ori, zeu jantzi naiez<br>Soñeko bat eunduko olerki emez.<br>Neuk be zeu bildu gura oial bigunez<br>Ume nintzala biltzen ninduzun maitez,<br>Jantziz abesten. | Neure arrebatxua jazten zendu lez<br>Neu be jantzi ninduzun, ama, bein batez.<br>Zapi zuri garbiak bedar-usaiñez,<br>jantzi txukun beroak pitxi politez<br>nire amak jazten.<br>Orain nik, aldiz, ama, zeu jantzi naiez,<br>zertxu bat eundu deutut, ordain-bearrez.<br>Neuk be zeu bildu gura oial bigunez,<br>ume nintzala biltzen ninduzun maitez,<br>jantziez, abesten. | Arebatxu biotza janzten zendun lez,<br>ninduzun jantzi neu be, ama, bein batez.<br>Beeko su ondotxuan –ereiñotz garrez<br>otza kendu zapiei ta usain emonez–<br>ginduzuzan janzten<br>Orain nik, ama ori, zeu jantzi naiez,<br>zertxu bat eundu deutsut alkar ordaiñez.<br>Neuk be zeu bildu gura oial bigunez,<br>ume nintzala biltzen ninduzun maitez,<br>jantziez abesten. | Arrebatxu biotza jazten zendun lez,<br>neu be jantzi ninduzun, ama, bein batez.<br>Beko-su ondotxuan –ereñotz garrez<br>otza kendu jantziei ta usain emonez–<br>ginduzuzan jazten.<br>Orain nik, ama ori, zeu jantzi naiez<br>Soñeko bat eunduko olerki emez.<br>Neuk be zeu bildu gura oial bigunez<br>Ume nintzala biltzen ninduzun maitez,<br>Jantziz abesten. |
| Ez egidazu esan atso zarenik,<br>apañez soñekotu ez zindezkenik.<br>Gaur be niretzat, ama, zeu ederrenik.<br>Orain arpegi ori mazkal, zimelik<br>Ongo baiatortsu!...<br>Ez esan ba taiua galdu dozunik<br>Galantena obetzat ezpai-daukot nik...<br>Laztan ori bizitun zaitudalarik<br>Ez dot beste iñor be maiteagorik:<br>Zeu zeuri nagotsu. | Ez egidazu esan atso zarenik,<br>apañez soñekotu ez zindezkenik.<br>Gaur be niretzat, ama, zeu ederrenik.<br>Orain arpegi ori mazkal, zimelik<br>Ongo baiatortsu!...<br>Ez esan ba taiua galdu dozunik<br>Galantena obetzat ezpai-daukot nik...<br>Laztan ori bizitun zaitudalarik<br>Ez dot beste iñor be maiteagorik:<br>Zeu zeuri nagotsu. | | |
| Eutsi mosu bat, kutun, ta itxi jazten;<br>jantziez ekingo nik kantu abesten.<br>Bekoki ori zimur ageriarren<br>Gaztea zara, andre, amak oi daben<br>Gaztetasun bidez.<br>Zarelakoak iñoiz ez dira zartzen:<br>Semietan baitira betikotutzen.<br>Eta begira, ama, zelan gatozen,<br>Begira gaztiena neskato lerden<br>barriro bazintzez. | Eutsi mosu bat, kutun, ta itxi jazten;<br>jantziez ekingo nik kantu abesten.<br>Bekoki ori zimur ageriarren<br>Gaztea zara, andre, amak oi daben<br>Gaztetasun bidez.<br>Zarelakoak iñoiz ez dira zartzen:<br>Semietan baitira betikotutzen.<br>Eta begira, ama, zelan gatozen,<br>Begira gaztiena neskato lerden<br>barriro bazintzez. | | |

| *Excelsior/Euzko- Gogoa* (EXC/EUZG) | ***50 olerki gandiagatar*** **(BOG)** | ***50 olerki gandiagatar*** **(BOG)** | ***Elorriko lorea*** **(ELRL)** |
|---|---|---|---|
| Nesktatilla zara ta erdu landara,<br>Erdu sagasti pilpil guriz betera<br>Seme onen omenak zeuganatzera.<br>Erdu, ama laztana, zeure zelaira<br>–Zugaitz biziz ase–.<br>Erdu jazte au oro maite antzera<br>lili-txorta eskeintzaz amaitutera.<br>Orain atseden, ama; zeure aurrera<br>Ekarriko deutsugu noizik beiñera<br>Gure biotz lore. | | | |
| Tori aurrena neure neurtitz-sortean.<br>Eutsi. Gorde idazu bular-barnean.<br>Biotzean batu dot, biotz unean...<br>Itxaron oraindiño sagastipean,<br>Anaiak datoz da.<br>Atseden, emakume, geure geizpean.<br>Begira zenbat pipil ler bearrean...<br>Iturri-ameari ura sorrean,<br>Zeuri guk geure lorak era berean<br>Ama zaitugu ta. | | | |
| | | Ederrenez nai zaitut soiñekoturik:<br>lorazko atorrea deutsut nik aitik.<br>Sarritan aurkitu naz etsi-urbillik,<br>ziztada egoki bat emon eziñik,<br>damuz gogaituta.<br>Maitasunak, ostera, beti zintzorik,<br>arlorako egin deust ziri bizkorrik.<br>Gaur emen dakartzut –nik, ez aal obarik–<br>bizitza gordin baten margoz ez ezik,<br>arimaz beteta. | Ederrenez nai zaitut soiñekoturik:<br>lorazko atorrea deutsut nik aitik.<br>Sarritan aurkitu naz etsi bearrik<br>ziztada egoki bat emon eziñik,<br>damuz gogaituta.<br>Maitasunak, ostera, beti zintzorik,<br>arlorako egin deust ziri bizirik.<br>Gaur emen dakartzut –nik, ez aal obarik–<br>bizitza gordin baten margoz ez ezik,<br>arimaz beteta. |

| ***Excelsior/Euzko- Gogoa*** **(EXC/EUZG)** | ***50 olerki gandiagatar*** **(BOG)** | ***50 olerki gandiagatar*** **(BOG** | ***Elorriko lorea*** **(ELRL)** |
|---|---|---|---|
| | | Eutsi musu bat, kutun, eta, itzi janzten.<br>Jantziez, jardungo dot, kantu abesten.<br>Zeugan ikusi nai dot, soin ori biltzen,<br>nire ainbat nekeren sari on daiten.<br>itzi egidazu.<br>Jantzi eta soiñetik ez kendu, arren.<br>Zeu zaitekez loraon murko ederren.<br>Betikotu eidazuz betiko naiten.<br>Biok biziko gara batasun baten<br>maitasun ta musu. | Eutsi musu bat, kutun, eta, itzi janzten.<br>Jantziez, jardungo dot, kantu abesten.<br>Zeugan ikusi nai dot, soin ori biltzen,<br>nire ainbat nekeren sari on daiten.<br>itzi egidazu.<br>Jantzi eta soiñetik ez kendu, arren.<br>Zeu zaitekez loraon murko ederren.<br>Betikotu eidazuz betiko naiten.<br>Biok biziko gara batasun baten<br>maitasun ta musu. |

*OHARRAK:*

Olerki hau, *Elorri* liburuan argitaratu aurretik, *Excelsior* eta *Euzko-Gogoa* aldizkarietan argitaratu zuen. *Euzko-Gogoa*-n “Orbelaun” dator sinatuta; *Excelsior* aldizkarian “Neure arrebatxua” hasten da eta “Gandiaga’tar Bitoren Ank.” dago sinatuta. “Nere ama jazten titulua *Excelsior* aldizkarikoa da.

1. EXC-ekoa da lehen bertsioa: 10 ahapaldi ditu.
2. EUZG-ko bertsioak 5 ahapaldi bikoitz ditu (10, beraz), EXC-koak bezala.
3. ELRL-ko bertsioak aldaketa handiak egin zituen olerkian: 3 ahapaldi bikoitz ditu bakarrik; lehen ahapaldi bikotza izan ezik, besteek ez dute EXC-koekin zer ikusirik. Hasiera ere ezberdina du.
4. ELR liburuak ia erabat ELRL-koa jaso zuen, aldaketa txikiren batzurekin.
5. BOG-en edizioak (2001) *Euzko Gogoa*-ko bertsioa jaso zuen; baina lehen sei ahapaldiak bakarrik.